

Egitura bihurkari eta elkarkari iragangaitzen erabilera corpus informaletan: ezagutu aditzaren kasua

Kristina Bilbao¹, Ane Berro², Beatriz Fernández¹ eta Mikel Iruskietza³

(1) Gogo Elebiduna; Basque and Beyond; UPV/EHU (2) Gogo Elebiduna; Basque and Beyond; DU (3) Ixa; HiTZ; Basque and Beyond; UPV/EHU

1. SARRERA

Euskarazko bihurkari eta elkarkari iragangaitzak ez-estandarrek izan arren, noizbehinka entzun eta irakur daitezke (Bilbao 2022). Corpus informalak aztertuz egitura horien erabilera behatu dezakegu.

- Bihurkari eta elkarkari iragankorrak eta anaforadunak (1) kanonikoak dira euskaraz:

(1) a. Jonek bere burua ispiluan **ikusi du**.
b. Mirenek eta Anek elkar **ikusi dute**.

- Bihurkari eta elkarkari iragangaitzak (2) eta elkarkari mistoak (3), aldiz, ez-estandarrek:

(2) a. Jon ispiluan **ikusi da**.
b. Miren eta Ane **ikusi dira**.

(3) Miren eta Ane elkar **ikusi dira**.



2. HELBURUA



Ezagutu aditzak egitura bihurkari eta elkarkari ez-estandarretan duen erabilera aztertzea corpus informaletan.


3. TRESNA

- Bilaketarako eta erauzketarako: AntConc



4. DATUAK ETA CORPUSA

- Basque Twitter Corpus extracted during Covid-19 pandemic (Fernández de Landa et al., 2024) 2.466.369 txio (2019-2021).



- Analisia: 499.211 txio (2020/01/01 – 2020/03/14)

5. EMAITZAK

- Bilaketa: “ezagutu” (2486 agerraldi)




Bihurkari eta elkarkari kanonikoak	Elkarkari iragankorrak (4)	31
	Bihurkari iragankorrak (5)	2
Bihurkari eta elkarkari ez-estandarrek	Elkarkari mistoak (6)	2
	Bihurkari eta elkarkari iragangaitzak	0
Bihurkari eta elkarkariak guztira		35

(4) Donostian ere Mintzaneteko kideok elkar ezagutu dugu! [...] #mintzanetbereahotan



(5) [...] Jajajaja!!! Berak bere burue ezagutu aben behintzet eta horrekin konformetan naz 😊

(6) [...] Bikoteak elkar ezagutu dira jokoan bitartez. [...]



6. ONDORIOA

- Aztertutako azpi-corpus informalean (499.211 txio) ezagutu aditza duten egitura bihurkari eta elkarkarien analisia egin dugu: **gehienak kanonikoak izan arren (%94,28), egitura ez-estandarrek bi agerpen izan dituzte (%5,72).**
- Aurrera begirakoak: aditz gehiago eta corpus handiagoa aztertu.

Bilbao, K. (2022). Euskarazko elkarkari iragangaitzak: lexikoak ala sintaktikoak? *Fontes Linguae Vasconum*, 134, 337–373.

Fernández de Landa, J., García-Ferrero, I., Salaberria, A., & Campos, J. A. (2024). Uncovering social changes of the Basque-speaking Twitter community during COVID-19 pandemic. In *Proceedings of the 3rd Annual Meeting of the Special Interest Group on Under-resourced Languages @LREC-COLING 2024* (363–371). ELRA & ICCL.